

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ERREGIMENA ETA MEZENASGOAREN ZERGA-PIZGARRIAK APLIKATZEKO ARAUTEGIA

60/2004 Foru Dekretua, urriaren 19ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimena eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak aplikatzeko arautegia onartzen da.

(ALHAO, 126. zk., 04-10-29koa)

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren bidez araututako zerga-erregimen berriak, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoak, erregimen berezi horren menpe egoteko baldintzak jasotzen ditu eta partikularrek zein enpresek egindako mezenasgoari aplikatu ahal zaizkion pizgarriak finkatzen ditu.

Foru Arau horretan legez araututakoa erregelamenduak dioenari lotzen zaio behin baino gehiagotan, bai erakundeei beraiei bai mezenasgoaren jarduerari aplikatu ahal zaien zerga-erregimenari dagokionean.

Erregelamendu honek hiru kapitulu dauzka, bakoitza sei artikuluduna, eta bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat ere bai.

Lehenengo kapituluak honako gaiak ditu arautzeko: uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan adierazitako baldintzak betetzen dituzten irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimena aplikatzeko prozedura, erakunde horiek aurkeztu beharreko txosten ekonomikoan jaso behar dena eta deklaratu behar ez diren errenten gaineko atxikipean edo konturako sarrerak egin beharrik ez izateko egiaztatu behar dena.

Bigarren kapituluan, berriz, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboentzat eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunentzat kengarri izan daitezkeen dohaintzak eta ekarpenak justifikatzeko prozedura arautuko da. Hain zuzen ere, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren arabera mezenasgoari dagozkion zerga-pizgarriak eskuratu dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeek beraiek jasotako dohaintza eta ekarpenak egiaztatzeko aurkeztu beharko duten adierazpen-aitorpena nolakoa izango den adierazten du.

Eta, azkenik, hirugarren kapituluak jendearentzat aparteko interesa duten gertakariei laguntzeko programetan ezarritako zerga-onurak aplikatzeko eta onartzeko prozedurari buruz hitz egiten du labor-labor.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Hortaz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ERREGIMEN BEREZIA,
ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK EGITEKO BEHARRIK EZ IZATEKO
ESKUBIDEAREN EGIAZTAPENA

1. artikulua.- Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimen berezia aukeratzea.

1. Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak II. Tituluan ezartzen duen zerga-erregimen berezia aplikatzeko, erakundeak erregimen hori aukeratzen duela jakinarazi beharko dio zerga alorreko administrazioari, horretarako den idatzia aurkeztuz.

2. Erregimenaren aukeraketa jakinarazi ondoren bukatzen den zerga-aldiari eta horren hurrengoei aplikatuko zaie zerga-erregimen berezia, erakundeak erregimen horri uko egiten diola esan bitartean.

Erregimenari uko egiten bazaio, ukapenak aurkeztu ondoren hasten den zerga-aldian izango du indarra. Uko egitearen jakinarazpena, gutxienez zerga-aldia hasi baino hilabete lehenago egin beharko da, dagokion bidearen bitartez.

3. Zerga-aldirik ez duten zergei dagokienez, zerga-erregimen berezia aurreko paragrafoaren lehen lerroaldean aipatzen den zerga-aldietan egin diren zerga-gaiei aplikatuko zaie, eta erregimen horri uko egiten bazaio, ukapenak aurreko paragrafoaren bigarren lerroaldean aipatzen den zerga-aldiaren hasieratik gertatzen diren zerga-gaietan izango du indarra.

4. Erregimen berezia aplikatu ahal izateko, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 5. artikuluan adierazitako baldintzak eta betekizunak bete beharko dira, eta zerga-aldi bakoitzean ikusiko da hori horrela den ala ez.

2. artikulua.- Zerga-erregimen berezia udal zergetan noiz aplikatu.

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 17. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, irabazteko xederik gabeko erakundeek Foru Dekretu horren 1. artikuluan arautzen dena aukeratu edo ukatu egin duten jakinarazi beharko dute.

2. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik eta Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergatik salbuetsita egoteari dagokionez, 1. paragrafoan adierazitako jakinarazpena, hau da erregimen berezia aukeratu dela edo erregimen horri uko egin zaiola jakinaraztea, ondasun higiezina dagoen udalari jakinarazi beharko zaio.

3. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergatik salbuetsita egoteari dagokionez, 1. paragrafoan adierazitako jakinarazpena, hau da erregimen berezia aukeratu dela edo erregimen horri uko egin zaiola jakinaraztea, dagokion udalari edo Arabako Foru Aldundiari Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari jakinarazi beharko zaio.

4. Udal zergetan zerga-erregimen berezia aplikatzeko eskubidea duten subjektu pasiboek, udal zerga horientatik dituzten zorrak iada ordainduta badituzte, ordaindutako zenbatekoak eskuratu ahal izango dituzte.

3. artikulua.- Txosten ekonomikoa.

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 5.6 artikuluan ezarritakoa betez irabazteko xederik gabeko erakundeek aurkeztu beharko duten txosten ekonomikoan honako informazioa adieraziko da:

a) Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita dauden eta ez dauden errentak identifikatzea, eta adieraztea uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 8. eta 9. artikuluetako zein hizki edo zenbakitan agertzen diren salbuetsita egoteko arrazoiak. Gainera sozietateen diru-sarrerak eta gastuak ere adierazi beharko dira. Gastuak erakundeak lortutako errenten artean banatzeko era zehazteko erabili diren kalkuluak eta irizpideak ere adierazi beharko dira.

b) Erakundeak bere estatutuetako helburuak edo bere xedea lortzeko egin duen proiektu edo jarduera bakoitzaren diru-sarrera, gastu eta inbertsioak identifikatzea. Proiektu bakoitzaren gastuak hainbat kategoriatan banatuko dira, hala nola langileen gastuak, kanpoko zerbitzuen gastuak edo materiala erosteko gastuak.

c) Uztailaren 12ko Foru Arauaren 5.1 artikuluan aipatzen diren errentak eta diru-sarrerak zehaztea eta horiek kalkulatzeko modua, bai eta horien helburua edo aplikazioa deskribatzea ere.

d) Erakundeak bere nagusiei, ordezkariari edo gobernu organoko kideei dirutan zein espezetan ordaindu diona, bai bere lanean aritzeko egin behar izan dituzten gastuengatik bai, beraiei dagozkien eginkizunez aparte, erakundeari eskainitako zerbitzuengatik.

e) Erakundeak hainbat merkataritzako sozietatetan duen partaidetza ehunekoetan, erakundearen identifikazioaz, izenaz eta identifikazio fiskaleko zenbakiaz gain.

f) Erakundearen ordezkariak merkataritza sozietateetan dauden administratzaileei erakundeak berak egiten dizkion ordainketak, horietatik zenbat itzuli den adieraziz.

g) Interes orokorreko jarduerak burutzeko erakundeak izenpetutako enpresen arteko lankidetzarako hitzarmenak, hitzarmen horietan parte hartuko dutenak eta parte hartzeagatik kobratuko dutena adierazita.

h) Estatutuek diotenaren arabera erakundea deseginez gero bere ondasuna zertarako erabiliko den, eta erakundea aurrean desegin bada ondareari eman zaion erabilera.

i) Nagusiei, estatutuetako ordezkariari eta gobernu organoetako kideei edozein kontzeptuengatik egin zaizkien ordainketak sartzea.

2. Txosten ekonomikoa Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean aurkeztu beharko da Sozietateen gaineko Zergaren aitortze-likidazioarekin batera.

Halere, zerga-aldian 30.000 euro baino gehiagoko diru-sarrerak dituzten erakundeek, merkataritzako sozietateetan parte hartzen ez badute, ez dute txosten ekonomikoa aurkeztu beharrik izango, egin egin beharko badute ere.

3. Erakundeak, bere kontabilitateko araudiaren ondorioz, urtero txostena egin behar badute, txostenean sartu ahal izango dute 1. paragrafoan adierazitako informazio guztia artikuluan honetan ezarritako betetzeko.

Kasu horietan, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak txosten ekonomikoaren gainean xedatutakoa betetzeko baino ez bada, aurkezteko lekua eta epea eta zerga administrazioan aurkeztu beharrik ez izateko arrazoiak 2. paragrafoan adierazitakoak izango dira.

4. artikulua.- Irabazteko xederik gabeko erakundeek jasotako errentengatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik ez izateko egiaztatu behar dutena.

Irabazteko xederik gabeko erakundeek atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharrik ez izateko aurkeztu behar duten egiaztapena, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan aipatzen dena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organo eskumendunak luzatutako ziurtagiriaren bitartez egingo da. Ziurtagiri horretan adierazi behar da zerga administrazioak badakiela erakundeak esandako Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-erregimen berezia aukeratu duela eta oraindik ez diola horri uko egin.

Ziurtagiri horretan bere indarraldia ere adieraziko da, eta indarraldia ziurtagiria egin denetik eskatzailearen zerga-aldia amaitu bitartekoa izango da.

5. artikulua.- Irabazteko xederik gabeko erakundeen ordezkari izendatutako administratzaileen ordainsariak.

Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 5.4 artikulua azken erroaldean aipatzen den salbuespenerako, hau da administrarien ordainsariengatik inolako atxikipenik ez egiteko, ordainketa egiten duenak egiaztatu egin behar du ordainsari horiek administratzaileak ordezkatzeko duen irabazteko xederik gabeko erakundeak berak eskuratu dituela.

II. KAPITULUA

MEZENASGOAREN ZERGA-PIZGARRIAK APLIKATZEKO PROZEDURA

6. artikulua.- Jasotako dohaintza, emari eta ekarpenen egiaztapena eta adierazpen-aitorpena.

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 25. artikuluan aipatzen den egiaztapenak honako informazio hau eman behar da:

a) Identifikazio fiskaleko zenbakia eta dohaintza-emailearen eta dohaintza hartzen duen erakundearen identifikaziorako datuak.

b) Beren beregi adieraztea dohaintza hartzen duen erakundea uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak aipatzen dituen mezenasgoko erakunde onuradunetako bat dela.

c) Dohaintza egiten den eguna eta horren zenbatekoa, diruzkoa denean.

d) Dohaintzan emandako ondasuna entregatu izana egiaztatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiriren bat, dohaintzak diruzkoak ez direnean.

e) Erakundeari eskainitako zerbitzuen diruzko balioa egiaztatzen duen faktura edo agiria.

f) Dohaintza hartzen duen erakundeak eman zaiona zertarako erabiliko duen bere xede zehatza gauzatze aldera.

g) Beren beregi adieraztea dohaintza ezeztatzina dela, dohaintza ezeztapena arautzen duten aginduzko arau zibiletan ezarritakoa gora behera.

2. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren 25.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, erakunde onuradunak urte bakoitzean eskuratutako dohaintzen, emari eta ekarpen kengarrien egiaztagiriei buruzko informazioa jasotzen duen deklarazioa bidali beharko dio zerga administrazioari. Deklarazio horretan, erakundearen identifikazio datuez gain dohaintza eta ekarpen egileen honako informazioa ere aipatu behar da:

a) Izen-abizenak, sozietatearen izena.

b) Identifikazio fiskalerako zenbakia.

c) Dohaintza edo ekarpenaren zenbatekoa. Horiek gauzatan direnean, dohaintzan emandakoaren edo ekarpenaren balioa.

d) Dohaintza edo ekarpena mezenasgoaren lehentasunezko jardueretarako den ala ez adieraztea.

e) Urte barruan, kasuan kasu, ezeztatu diren emari, dohaintza eta ekarpenei buruzko informazioa.

Adierazpen-aitorpen hau urtero egingo da, urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egunetan, eta aurreko urtean jasotako dohaintzei buruzkoa izango da.

Adierazpen aitortzen hau Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak esandako lekuan eta moduan egingo da, eta berak ezarriko du, hala nahi izanez gero, zein kasutan erabili ahal izango diren ordenagailuaren bitartez edo bide telematikoez zuzenean irakur daitezkeen euskarriak.

III. KAPITULUA

JENDEAREN INTERES BEREZIKO GERTAKARIAK LAGUNTZEKO PROGRAMETAN EZARTZEN DIREN ZERGA ONURAK APLIKATZEKO PROZEDURA

7. artikulua.- Edukia eta aplikazio eremua.

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak 30. artikuluan aipatzen duen foru dekretuak, beti ere, jendearen interes bereziko gertakariak laguntzeko programetan ezartzen diren zerga onurak aplikatzeko prozedura arautuko du.

2. Zerga administrazioak kapitulu honetan aipatzen diren zerga onurak aplikatu ahal izateko behar diren baldintzak betetzen ote diren begiratu ahal izango du, eta behar izanez gero erregularizazioa egingo du.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Eliza Katolikoa eta beste eliza, konfesio eta komunitate erlijioso batzuk: Zerga-erregimen berezia aplikatuko zaie, eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharretik salbuetsita egoteko egiaztapena aurkeztu beharko dute.

1. Uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren Zazpigarren Xedapen Gehigarriak 1. paragrafoan aipatzen dituen erakundeek, foru arau horrek 7tik 17ra bitarteko artikuluetan ezartzen den zerga-erregimen berezia aplikatu nahi badute, ez dute foru dekretu honetako 1. eta 2. artikuluetan araututako jakinarazpenak egin beharrik izango. Zerga-erregimen berezi hori subjektu pasiboak berak aplikatuko du deklaratu edo autolikidatu beharreko tributuak badira. Gainontzeko kasuetan, zerga administrazioak aplikatuko du.

Erakunde hauek atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharrik ez izateko aurkeztu behar duten egiaztapena, uztailaren 12ko 167/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan aipatzen dena, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko organo eskumendunak luzatutako ziurtagiriaren bitartez egingo da. Ziurtagiri hori interesdunak berak eskatu beharko du eta epemugarik gabekoa izango da, eta bertan adierazi beharko da erakunde hori Foru Arau honen zazpigarren xedapen gehigarriak 1. paragrafoan adierazitakoetako bat dela. Eskabidean erakundearen nortasuna eta izaera egiaztatu beharko dira, eta horretarako Justizia Ministerioaren menpe dagoen Erakunde Erlijiosoaren Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

2. Uztailaren 12ko 167/2004 Foru Arauaren Seigarren Xedapen Gehigarriak eta Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 2. paragrafoak adierazten dituzten erakundeei foru dekretu honetako 1., 2. eta 4. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaie, zerga-erregimen berezia aukeratu ahal izateari eta atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharretik salbuetsita egoteari buruz dioenaren ondorioetarako.

Bigarrena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren aldaketa.

Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Araudiaren testu bateratuak, Abenduaren 18ko 111/2001 Foru Dekretuaren bidez onartu zenak, 94. artikuluan 2. paragrafoan dioena aldatu egiten da, eta jarraian bezala idatzita gelditzen da:

“2. Zerga honengatiko kenketetarako eskubidea ematen duten dohaintzak jasotzen dituzten erakundeek dohaintzen adierazpen-aitorpen bat aurkeztu beharko dute hurrengo urteko urtarrileko lehenengo hogeita hamar egunetan. Aitorpen horretan, erakundearen identifikazio datuak eman eta uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoak, ezarritako kenkarien araubidearen menpe dauden ala ez adierazteaz gain, irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga-erregimena eta mezenasgoaren zerga-pizgarriak aplikatzeko araudia onartzen duen foru dekretuaren 6. artikuluan, 2. paragrafoan, aipatzen diren datuak ere eman beharko dira.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak aitordua aurkezteko aurreko paragrafoan adierazten den epea aldatu ahal izango du, aitordua ordenagailuaren bidez zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkezten denerako.”

Hirugarrena. (1) Lotutako eragiketak.

Bidezkoa denean, Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuko 9. artikuluko 3. idatz zatian eta artikuluko bereko 5 - 7 bitarteko idatz zatietan xedatutakoa ondokoei aplikatu ahal izango zaie: irabazteko asmorik gabeko erakundeen eta mezenasgorako zerga pizgarrien zerga araubidea ezarri duen uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauko II. tituluan ezarritako zerga araubidea aplikatzen zaien erakundeei eta haiekin lotutako pertsonari eta erakundeei.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean sartzea.

Foru Dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du indarra.

DIPUTATU NAGUSIA: Ramón Rabanera Rivacoba

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO DIPUTATUA: Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea

OHARRAK

(1) 55/2010 Foru Dekretua, azaroaren 16koa.

(ALHAO, 139. zk., 10-12-10ekoa).